

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Justo Camino Ibargoien

*Usurbil,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Errementaldegi baserrian jaio zen, bost anai-arrebaren artean gazteena bera. Aita Txoko Aldekoa zen eta Arozena zentrolean egiten zuen lan; ama Kalexarkoa zen. Baserrian lan asko egindakoa, 35 urtean Ingemarren egin zuen lan, eta hara joateko Txoko Alde eta Usurbil arteko trenbidearen tunela zeharkatzen zuen oinez egunero. Kontu guzti hauek kontatu zizkigunean, Txoko Alden bizi zen [emazte](#)arekin, baserriko lanekin jarraituz.

Zintak

USU-018

- **Proiektua:** Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-05
- **Iraupena:** 70 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Eider

USU-019

- **Proiektua:** Usurbilgo Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-08-05
- **Iraupena:** 42 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Zentraleko lanaren gorabeherak

- **Erref:** USU-018/002
- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:01:48. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Aitak baserrian egiten zuen lan, eta gero Arozena zentrolean aritu zen.

Zentralean zer zeregin izaten zituen azaltzen du. Halako hiru zentral zeuden. Zentraleko argia leku askotara iristen zen. Batzuetan, Aginagan argirik ez zela eta, deitu egiten zuten Justoren etxera, eta Justok postera igo behar izaten zuen fusibleak aldatzera. Argiak zergatik saltatzen zuen azaltzen du.

2. Telefonoa non egoten zen

- **Erref:** USU-018/003
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:05:41. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefonoa zenbait etxetan zegoen, baita Arozena zentralean ere. Behin telefonoaren kablea hondatu egin zen eta Justok hura nola konpondu zuen azaltzen du.

3. Presatik ura jaisteko egiten zituenak

- **Erref:** USU-018/004
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Uraren presa dagoen lekuan zeta-fabrika zegoen. Presan saretoa egoten zen eta ura ez zen jaisten. Makina bat aldiz igo behar izaten zuen Justok saretoa irekitzera.

Transkripzioa

-Geo hor goyan; ez dakit honek izandu dan. Galonian izan al haiz?
Galonetik gorago presak. Uren presa zioke han.
Joxe: -Usurbilko urena. Hor lehenoz ez al zan seda-fabrika?
-Bai, hoi dek, bai.
Joxe: -Seda iten zan hor, e.
-Nun egiten zan seda?
-Hor goyen. Hor goyen do etxe haundi bat, oaiñ'e tente do pareta.
-Zenbat langille egoten zian?
-Ez dakit hoixe nik, akaso zaharren batek jakingo du baiño ez dakit nola.
Geo han genezkan zeak, rejillak San Ixtebango depositora datoztinak,
haundiya bat haundiya eta geo haruntzexeao beste bat ttikiya ta. Askotan
juten nitzan tela fabrikako hortatikan eta. Ba ura, rejilla nola itxita zeon ura
ta, "jo!, oain'e nolabait pasa biharko dit ba ta". Pasa polliki-polliki rejilla iriki
ta bajatzen zanian biyak garbittu ta. Askotan geo esaten zian; lehortia
zania, berriz, esaten zian: "jun hai, San Ixtebanea jun hai". Tartian tapatu
gabe zeon deposituba, "ta ikustak zenbat ur daon makillakin junda". Ta
hola erreparatzen niyon, betetzen zanen gaiñezka itteko zea zun, zulo bat,
eta erreparatzen niyon, eta "aitta, honbeste palta du", ta "bueno, bale,
ondo ziyok. Oain makina pixkat ura gutxiyo pasatzen dula jarriko dit",
esaten zun. Ta holaxe ibili giñan. Zenbat..., xentimoik'pe, e!, buelta ta
buelta ta buelta!

4. Arozenari lan-baldintzak hobetzeko eskatzen

- **Erref:** USU-018/005
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:09:35. **Bukatu:** 00:12:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Hiru hilabetetik behin kobratzen zuen aitzak zentralako lanarengatik. Hiru zentral zeuden, eta haietako arduradunak Oriola joaten ziren Arozenarengana jorral bila. Behin haietako batek soldata igotzeko eskatu zueneko kontakutzen du. Arozenari txapelean nabaritzen zioten zer umoretan zetorren.

5. Polizia-zakur zintzoa

- **Erref:** USU-018/006
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:12:14. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Natura » Fauna » Etxeko animaliak

Laburpena:

<p>Lehen gutxi batzuek agintzen zuten. Don Ambrosio zaharrarenean lanean aritu zen Justo; polizia-zakurra zeukan eta zakurrak esaten zitzaion guztia betetzen zuen.</p>

Transkripzioa

-Ordun dana holaxe zan, hemen bi-hiruk agintzen zuen. Geo zea hemen, don Anbroxio zaharra, ezautu al hun? Bai? Ta ni pixkat ibilli nintzan hor lanian eta. "Zu Lontxon semia emen zea?" ta biyak jiratsukuak zian eta. "Bai, hala naiz bai", ta "Hua nee launa da" esaten zian eta. Jardñian, oain hondatuba do dana baiño, jardñian bayan pasa bere neurriko learra, Oriyotik ekarri ta learra pasa ta bidietan botata eukitzen zun. Eta bidiak garbi-garbi einda. Bi-hiru mutil beti lanian eta. Rak! rak!, rak!, rak!, dana buelta.

Joxe: -Hemen bixarra ez al zun hola?

-Bai. Ta buelta guztiya jardñai rak! eman eta. Geo gure aitta difuntuak esaten zun, zakurra polizia-zakurra emen zun. Ta mendia Andatzaa askotan juten emen zan eta; mendia jun da eta egualdiya bastante ona emen zeon jun zanian eta hara jun zanian ebiya hasi. Ta baiño zakurra beakin, polizi-zakurra ta. Esan emen ziyon dak! eta poligrafoa ta papera hartu emen zittun eta eskribitu emen ziyon, eta "hau eramayozu...", izena aittu det makiña bat bider, "amai eramayozu hau" ta zakurrai hortzetan eman diyo papera ta, etorri da, ta guardasola eamateko, ta guradasola hartu ta berriz Andatzaa zakurra. Baiño egunero berakin. Hizketan ez zun jakingo baiño beakin beti zakurrakin. Holakoxe istorik izaten zittun.

-Txakurra polizia-txakurra?

-Polizi-txakurra, bai.

-Nolakuak zian haiek?

-Oain ikusten dia polizi-zakurrak hola tarteka.

-Horrek zer egiten dia, entrenatu o?

-Bai. Egunero beakin zabillega, hizketan ez baiño gaiñontzian dana. Hola jarri ta. Esaten diyona dana aitzen dula, bueno. Bai, izugarri.

6. Txoko Aldeko xanpain-fabrika

- **Erref:** USU-018/007
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:14:34. **Bukatu:** 00:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Txoko Alden lehen xanpain-fabrika zegoen. Fabrikak nola funtzionatzen zuen azaltzen du. Ilarramendi zen fabrika hura eta kiebra jo zuen. Batzuetan Justok xanpain baso baten truke egiten zuen umetan lan fabrika hartan. Fabrika hartan gizon eta emakumeek egiten zuten lan.

7. Emakumeek lan asko egin behar izana

- **Erref:** USU-018/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:17:38. **Bukatu:** 00:18:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:

<p>Emakumeek lehen lan asko egiten zuten. Lehen familia handiak nola-hala moldatzen ziren aurrera ateratzeko.</p>

8. Sagarra nola jotzen zuten

- **Erref:** USU-018/009
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:21:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Lehen oso kotxe gutxi zeuden Txoko Alden. Lehen sagar asko zegoen eta Saltxipiko emakumeak sagarra jotzen laguntzeko deitzen zion Justori. Sagarra nola jotzen zuten azaltzen du.</p>

9. Matxinbentatik ekarritako astoa

- **Erref:** USU-018/011
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:23:31. **Bukatu:** 00:26:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Koinata Matxinbentakoa zuen, eta baserri hartara 15 egunerako joan zen. Han bi asto zeuzkaten eta haietako bat Azpeitian saltzera eraman zuen anaiak; ez zuen saldu ahal izan, ordea. Asto hura azkenean Justok ekarri zuen etxera.

10. Komunioko erantzunak txibatu zizkietenekoa

- **Erref:** USU-018/012
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:26:09. **Bukatu:** 00:28:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

Matilderekin joan zen eskolara, baina ez zuen eskolarako gogorik izaten. Komunioa egiteko, galdera batzuk erantzun behar izaten zituzten eta Justori ondokoak txibatu zizkion erantzunak.

Transkripzioa

-Eta eskolara jun al zīñan?
-Bai.

-Nora?

-Matildekin-eta ibili nintzan, Matildekin ta pixkat, gutxi baiño gutxi. Gogoik ez nun eskolarako. Oain baten batek esaten bazian "Hi, idikin holako tokitaa jungo al haiz?", jode, bai gustoa! Eskolaako gogoik ez nun.

-Eskolatik piper egiten?

-Ez, ez, piperrik ez baiño ez nun zerikan. Goguan dakat hor honek ezautzen dittu bi anai apaizak horkuak, ta komuniyua itteko saltoka galdetzen ziun erretoriak, eta ni apaiz in zan horren onduan, ez nun gorreriya haundiik, harek ixil-ixilik esaten zian eta nik taka! Hua zala medio, bestela... Zea, Pepita Ikutza ezautzen dek hik; hua kalabazero aurreko urtian-edo, kalabazero bialdu zin. Ta ni're bildurak ta...

Joxe: -Kalabazero zan ez zula aprobatu.

-Ta gero Donostin in zun, gero Donostin in zun. Ta nik'e bildurra ta, ez nun gorrieria haundirik, harek ixi-ixilik esaten zian, Patxik, eta nik taka!, ta hala salbatu nintzen. Bueno.

-Nola ikasten zenun?

-Bai zeoze ikasi bai, baiño geo ez nintzan geo haren galderetara ondo saltatzen. Harek puntua hemengua eta hurrungo horkua ta galdetzen ziun eta.

-Iten al zenuten txuletaikan orduan?

Joxe: -Esan du... txuleta, "le chivaba el otro".

-Baiña txuleta idatziya ez.

-Ez. Esan izandu niyon, geo apaiz ein zan hau ta esan niyon: "goatzen al zea Patxi nola...?", ta parre itten du. "Goatzen al zea nere aldamenian jarrita nola..."

11. Eskolara joan baino nahiago lan egin

- **Erref:** USU-018/013
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:28:21. **Bukatu:** 00:29:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolan dotrina ikasten zuten. Eskolara joan baino nahiago izaten zuen lan egin. Zer maistra izan zituen azaltzen du.

Transkripzioa

-Eta zer ikasten zenuten eskolan?

-Eze asko ez baiño dotriña edo zeoze. Geo nik hola "dividir" ez dakit ikasi nun o, nahiko lan. Hortxe geatu nintzan. "Multiplicar" ta holako zea batzuk itten nittun baiño gaiñontzin ez nun gogoik eskolaako nik. Ezta...! Jesus Maria ta Jose!

-Zuk nahio lan in? Lan o lagunekin ibili o...?

-Nik bai. Bueno, hemen edozeiñek esaten bazian "hi, etorriko al haiz?" ta bueno. Hoi bai baiño besteik... Eskolaako gogoik gutxi nun nik.

-Ze maistra izaten zendun?

-Gertrudis ta. Hik ez al hun ezautu Gertrudis?

Joxe: -Matilde.

-Matildekin'e bai. Oaindak bizi da Matilde.

Joxe: Bai, hombre.

-Bizi da.

12. Eskolako materiala

- **Erref:** USU-018/015
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:29:50. **Bukatu:** 00:31:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala

Laburpena:

<p>Eskolan zer material erabiltzen zuten azaltzen du.</p>

13. Gerran kanoiak idiekin igotzen Andatzara

- **Erref:** USU-018/018
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:33:14. **Bukatu:** 00:35:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasi zenean, gogoan du ehiza-hegazkinak zeruan ikusten zituztela.

Gogoan du kanoia idiekin igo zutela Andatzara. Gerra garaia ondo pasa zuten, baina gerra ostea izan zen txarra.

14. Angulak harrapatzen zebiltzala, tiroak

- **Erref:** USU-018/020
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:38:53. **Bukatu:** 00:39:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Ibaian angulatan aritzen ziren; eta horretarako, baimena behar izaten zen. Norbaitek ez zeukan baimenik eta tiroka aritu ziren beste aldetik. Ahal zuten moduan egin zuten alde orduan.

Transkripzioa

- Geo angulatan'e pixkat ibiltzen giñen erriyuan ta in bihar zendun holako patente zea bat atea, permisua. Ta bazakiyen baten bat atea gabe zegola ta hor tiroka ta ibili zian zubitik, erriyoko zubitik.
- Ze urtetan hori?
- Ez dakit, baiño urte asko. Hemen leno nola egondu gea Joxe Mari portukua?
- Bai.
- Hua hor huban ingurun, zean, zubi onduan tirouak ibilli zianian. Ahal zunak ahal zun tokia alde in genun, jata hara ta honea ta... ordun jende txar asko zan, ikeragarri.
- "Treinta y ocho" aldian o hola izango ziñaten.
- Ez zakit ze urte...
- "Treinta y ochua" izango huan zuek zeatu zenduenian.

15. Trenean garia ez harrapatzeko egindakoak

- **Erref:** USU-018/022
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:44:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Trenbideko langileak

Laburpena:

Gerra ostean, gosea pasa zuten. Zizurkilgo errotara joaten ziren ezkutuan artoa eramatera. Trenean gariarekin ez harrapatzeko, zakua leihotik bota zutenekoa kontatzen du. Treneko txartel-zulatzailuez hitz egiten du.

16. Baserrien arteko elkartasuna

- **Erref:** USU-018/027
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:50:16. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Justo ez da inoiz morroi izan, baina baserrien artean elkarri laguntzen zioten.

Transkripzioa

- Zu morroi ibili ziñan?
- Ez, morroi sekula ez. Beti izaten zan hemen basarri txar hontan lana zanian Iñarberaiño igual jun bihar izaten genun idi bila. Ta hemen hartzen bazendun baten bat laguntzeko idik dazkana, gero lagundu in bihar ziñun

haren truka. Holaxe ibiltzen giñan beti. Ta Murgillenea jun izandu giñan eta handik ekarritzak idik eta geo jun hai Andatzaa ta geo jun hai berriz... Ez... ibillera tristia.

17. Angulak harrapatzeko teknikak eta tresnak

- **Erref:** USU-018/028
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:50:55. **Bukatu:** 00:53:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Angulak harrapatzen aritu zen gaztetan; zer tresna eta teknika erabiltzen zituzten azaltzen du. Marea goian zegoela joan behar izaten zen angulak harrapatzera. Gauez joaten zirenean, farola eramaten zuten angulak ikusteko; farolak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

Transkripzioa

-Angulak harrapatzen ibiltzen ziñaten?
-Pixkat bai angulak harrapatzen, bai.
-Nola izaten zan hori? Zenbat urtekin?
-Gaztetan, nik ez dakit zenbat urte baiño bai. Jela galantakin'e jun in bihar, bestiak jun dittuk eta jun hai ta. Danba! ta danba! ta eskuk hola danba! ta jota. Nikolas Errotako ta Joxe ta. Ikeragarri jendia ibiltzen zan hemendik.
-Nola izaten zan harrapatzeko?
-Hor alak zien, ala haundik eta geo itten giniyon zea jarri, atzian makina bat, oaindik goian do makina berri berriya, ta atzian jarri makina, bi lagun bihar, bestia juten zan eta rast! botatzen zun bahia aurrian eta, ra!, ra!, ra! soka erantsi ta tak! geo hola kalka ta tak! ateatzen zun bahia.
Joxe: -Atoiya edo zer esaten zitzaion?
-Bai, atoiya.
-Ze tresna, nola izena zuten tresnak?
-Bahiya ta makina. Ez dakit ba nik nola, ze-nola deittu. Ez zakit izenik horrenik. Oandikan ganbaran bado harriya baiño...
-Eta ze ordutan juten ziñaten?
-Hori mariakin ibilli bihar izaten zan. Maria nola daon. Gaur ordu bitan, biyar hiruretan, hurruna lautan, hurruna bostetan...
-Ze behar zan maria goian o behian egotia?
-Goyen, goyen dola. Jotzen zunian urai ikuitzen zuenerako jun in bihar zendun. Ta angulak hasten zian ura gora datorren bezela, ttaka, ttaka, ttaka ta.
-Nola somatzen zan nun zeuden angulak?
-Bai, ikusten zan, oaingo aldian erriyua garbiya zan. Lurreko harri guzik-eta ikusten zien eta, bueno! Ikusten zan earki angula.
-Gaua bazan ere?
-Farola eamaten gendun, argiya etortzen zian, argiya eamaten...
-Farola nolakua zan?
-Farola? Holakoxe katxarro ttiki bat eta geo aldian ttak! bi txapa zittun eta han sartzen gendun eta jartzen gendun parola ta.
-Zerrekin egiten zun argiya?
-Kandelak. Kandlekin, bai. Bi kandela jarri. Hola bi zea zittun eta bitan kandela jarri ta haren argiyakin.

18. Angula asko zegoeneko garaiak

- **Erref:** USU-018/029
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:53:24. **Bukatu:** 00:56:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Lehen angula asko zegoen ibaian. Angula bizirik egonda, garestiago saltzen zen; hildakoan, hondatu egiten ziren. Angula asko zegoenean, merke saltzen zen. Ibaiko angulak zergatik urritu diren azaltzen du.

Transkripzioa

-Zenbat harrapatzen zenuten?

-Ni ez nintzan hartaiñoko pillakin egokitsu baiño hor kilua bi erriellen eta gue izebak esaten zun ezautu zula. Kriston pillak.

Joxe: -Jode, kilua bi errialian?

-Bai. Lurrai emateko modun bolara batian. Ikeragarri angula. Gurea orduako zeatu zan pixkat baiño hor... Gue zeak esaten zun, izebak esaten zun ba egokitsu emen zitzaion da!, angulakin itxi bahia ta, zer da? atea ta, buuuu!, dana beteta. Geo zian, hemen dezkau hiru depositu, ta depositura botatzen gendun segittun. Geo hok galdu zianian Goiko Errotako ondun beste deposituba in gendun ta hara eamaten giñun eta.

Joxe: -Bazenituen hemen deposittuk, e.

-Bai. Bana. Honek Irunequak bat, Portukuak bestia ta guria bestia, hiru depositu, bai. Ta oain etxia botatzekuan askotan esaten dit, ura azaldu bihar dik hor. Ordun angulentzako mantentzeko aiña bahuan eta oaiñ'e ura azalduko dek hor. Iruditzen zait.

-Eta zertako botatzen zen depositora, bizirik saltzera eramateko?

-Bai. Bizirik, bai. Bestela akaatu itten zian. Hola pillan ateatakuan akabatu itten da azkar.

-Eta bizirikan euki behar zian jan aurretikan?

-Bai. Preziyo gehiyo itten du biziya eta. Bestela hondatu itten da segittun.

-Hondatuta ze itxura eukitzen du angulak?

-Txuriya baiño hemen goiyen guk euki giñunien Karlos ibiltzen zan karrayo, hemen aldapa hontan earki ateatzen harek antomoilla ta. Hoik bateko Madrida ta besteko zea, pill ederra ibilli zuen, jesus! Angula ikeragarri.

-Eta noiz hasi zan angula garestitzen?

-Hori, ez dakit ba nik. Urte batzuk izango dia. Baiño hor angula asko zeonian ordun merke.

-Ibaia zikintzen hasi zanian igual urrituko zan?

-Hor barran ez dakit nik hor. Motorrak asko izorratu due hau. Ez zan lehen motorrik garai hartan. Txalopai motorra jartzen diye eta jartzen dittue hola bi aldetatik bahiak eta hartzen due buuuuuu! ta abaillan jutun dia. Abaillan jutun baldin badia angula akaatu itten da. Mantxo jun bihar du. Ta geo hemendik nahi dun bidian jutun da ta buelta ematen due ta haik garbitzen due. Baiño ez da sartzen, garai batian bezela ez da sartzen oain itsasotikan angulik.

19. Izkirak harrapatzen aritzen zenekoa

- **Erref:** USU-018/030
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:56:29. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Izkiratan ere aritua da Justo. Orion harrapatzen zituzten eta hartarako zer tresna erabiltzen zituzten eta nola funtzionatzen zuten azaltzen du.

20. Angulak tratatzeko egin beharrekoak

- **Erref:** USU-018/032
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:01:05. **Bukatu:** 01:03:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak

Laburpena:

Angulak non saltzen ziren. Angula tratatzeko egin beharrekoak aipatzen dituzte, oso delikatuak dira.

21. Soldadutzan ilea moztetik libratu nahian

- **Erref:** USU-018/035
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 01:04:31. **Bukatu:** 01:07:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

<p>Soldadutzan urte eta erdi egon zen, Burgosen. Behin ilea moztetik libratu zen etxerako baimena zuenean. Soldadutzan ilea nola eta zergatik moztzen zuten azaltzen dute.</p>

22. Soldadutzako zereginak

- **Erref:** USU-018/036
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 01:07:42. **Bukatu:** 01:09:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Burgosen negua gogorra zen eta gaueko guardia egitea tokatzen zenean, ezin izaten zuten ordubete baino gehiago aguantatu. Maniobratan ere aritu ziren soldadutzan.</p>

Transkripzioa

-Ta geo neguba ikeragarriya ta, guardia eukitzen zanian bi ordu in bihar izaten zian ta, ezin aguantatu hotzakin, Burgos ikeragarri hotza da ta. Ordubetetikan'e kanbiatzen giñun hotzakin.

-Abrigo berezin bat edo?

-Erropa ona hoi bai, bi traje udarako ta negurako; erropa ona baiño hala're han geldiegonian edo zabiltzala ez zun...

Joxe: -Paseo harek nola zun izena, Paseo la Castellana edo?

-Ahaztuba zekat nik.

Joxe: -Ez al haiz goatzen?

-Ez. Geo zean'e maniobretan ibilli giñun mando zaharrakin. Ordun sikiraik gabian lo lasai itten huan ta libratzen hitzan gaiñontzekotatikan eta. Baiño maniobretan'e jipoiya.

-Jipoia?

-Bai. Mendin barrena biaje asko in bihar izaten da eta geo tiruan'e ibilli giñan hoge bat edo.

Joxe: -Jan txarra, gosia...

-Ta geo lurrian jarri hola zea hoge bat edo ta, blankuak hemendik trenbidea bezela ta, benga! fuego!, eta, ta! ta! ta! ta! Ez dakit nora juten zian. Ez zien blankora ailleituko noski ta. Geo hua berotzen zanian, beste hoge bat edo atzetik etorri eta ra! jartzen zien eta. Holaxe ibiltzen giñen.

23. Soldadutzako janaria eta dirua

- **Erref:** USU-019/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan janari gutxi eta txarra izaten zuten. Dirua bazuen, bere kontura erosten zuen zerbait. Orduko prezioak aipatzen dituzte. Jiroak izaten ziren orduan, etxekoek dirua bidaltzeko.</p>

24. Soldadutzan euskaraz egin nahi

- **Erref:** USU-019/007
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:07:45

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Soldadutzan gaztelaniaz hitz egiten ikasi zuen Justok. Joxeren garaian, euskaraz hitz egitearen truke ardoa ematen zioten tenienteari.</p>

25. Ingemarren lanean hasi zenekoa

- **Erref:** USU-019/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:11:43. **Bukatu:** 00:13:58

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Soldadutzatik baimena ematen ziotenean, etxean eta auzokoen etxeetan lan egiten zuen. Gerora, Ingemarren aritu zen lanean 27 urtean. Ingemarren nola hasi zen eta bere eginkizuna zein zen azaltzen du.

26. Ingemarko lana eta istripua

- **Erref:** USU-019/012
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:14:28. **Bukatu:** 00:15:32

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak

Laburpena:

<p>Ingemarko lana astuna zen, eta eskuetan min handiak izaten zituen. Gerora, beste eginkizun bat egitera bidali zuten. Lan-istripua izan zuen behin.</p>

27. Usurbilgo tunelean izandako ezbeharra

- **Erref:** USU-019/014
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:17:18. **Bukatu:** 00:20:28

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Txoko Aldetik Ingemarra lanera joateko, tuneletik joaten zen oinez. Tuneletik igarotzeko jakin beharrekoak aipatzen ditu. Behin gizon bat hil egin zen tuneletik pasatzen ari zela.

28. Lanera tuneletik barrena

- **Erref:** USU-019/016
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:20:46. **Bukatu:** 00:22:22

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Tuneletik igarotzeko, argiak zeuden eta horren bidez bazekiten nondik zetorren trena; eskuetan linterna eramaten zuten. Tunelean izandako istripu bat aipatzen du. Tuneletik korrika batean pasatzen ziren.

29. Absoluziorik gabeko bekatua

- **Erref:** USU-019/018
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:23:05. **Bukatu:** 00:24:53

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Behin, mezara joan aurretik, mandarina jan zuen eta hori garai hartan bekatua zen; ez zioten absoluzioa eman nahi izan.

30. Nesken jarrera mutilekiko lehen

- **Erref:** USU-019/021
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:32:06. **Bukatu:** 00:32:58

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Lehen neskengana inguratzea zaila zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com